

Langileen aldarrikapenen aurrean patronalen aldetik egondako erantzun ezak sindikatuoi greba deialdiak indartzera behartzen gaitu

Kristau Eskola, AICE, Ikasgiltza eta Elizbarrutiko Ikastetxeen aldetik gure eskariei emandako erantzun ezak eta EAEko Gizarte Ekimeneko sektoreko langileek martxoaren 20ko grebari emandako babes handia ikusita, sektorean ordezkaritza dugun sindikatuok (ELA, STEILAS, CCOO, LAB eta UGT) bi greba-egun gehiago iragartzen ditugu ikasturteko hirugarren hiruhilekorako.

Honez gero jakingo duzue, iazko irailean, negoziazioa urtetan ito-puntuan egon ondoren eta hitzarmena 2009tik berriro gabe, sindikatuok gutxienezko eskariak jasotzen zituen plataforma bateratua aurkeztu genien patronalei, baina ez ziguten ganoraz erantzun. Hori zela-eta, azaroan sektoreko sindikatuok negoziazio-mahaia utzi genuen, eta mobilizazio-sail bati ekin genion, bertan geldirik zeuden patronalak mugiarazteko modu bakarra zelakoan.

Martxoaren 20an sektoreko langileok oso modu zabalean babestu genuen ELA, STEILAS, CCOO, LAB eta UGT sindikatuok egindako greba deialdia. Bilbon, Donostian eta Gasteizen izandako manifestazio jendetsuak sektorea ia-ia guztiz gelditu zelaren frogarik argiena dira, %70tik gorako jarraipenarekin. Egun hartan ondo agerian geratu zen premiazkoa zela negoziazioak edukiz betetzea, eta gure eguneroko lanerako eta gure lan-baldintzetarako behar-beharrezkoak diren alderdiak adostea: ordu osagarriak, kidegorik prekarioenak artatzea (hezkuntza-laguntzako espezialistak eta haur-hezkuntzako lehen zikloko langileak), enpleguari eusteko plan baten beharra, eta galdutako eroste-ahalmena arian-arian berreskuratzea.

Gure aldarrikapenak oso argiak dira, baina patronalen aldetik ez dute erantzunik izan, beraien ardurak saihesten eta informazio toxikoa zabaltzen jarraitzen duten bitartean. Aukera baliatu nahi dugu argi uzteko ez dela egia gure eskaerek ikastetxeen bideragarritasuna arriskuan jartzen dutenik; horietako batzuk ez dute kostu ekonomikorik (ordu osagarrien kasuan) eta beste batzuk kolektibo txikiei eragiten diete.

Patronalaren proposamen ezaren aurrean mobilizazioak indartu behar ditugu, bi greba-egun gehiagorekin. Maiatzaren 15a eta 16a izango dira, eta greba-deia EAEko Gizarte Ekimeneko ikastetxe guztietako langileentzako da: Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, DBH, Batxilergoa, Lanbide Heziketa, Hezkuntza Laguntzako Espezialistak eta Administrazio eta Zerbitzuetako pertsonala.

Aurrera begira egoera aldatu ezean, mobilizazioak areagotu beharko ditugu hurrengo ikasturtean, greba deialdi berriekin. Horiek garaiz iragarriko ditugu, baina kopuruz askoz nabarmenagoak izango direla alde aurretik esan dezakegu.

Euskal Herria, 2018ko apirilaren 26a.

